

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Dakigunez, batxilergo ikasketak eta selektibitatea amaitzean, hurrengo pausoa unibertsitatera joatea da. Horregatik, gure euskal ikasleek, askotan, beste hiri batzuetako unibertsitateetara ikastera joan behar dira. Honek, hainbat arazo dakar, hala nola familiarik urrun egotea edo non lo egiterik ez izatea, eta arazo honetan oinarrituta gure proiektua garatu dugu.



JONEN\$ proiektua ikasle hauek laguntzeko aplikazioa da, etxebizitza erraz aurkitzen laguntzeko. Horretarako, gure aplikazioan etxebizitza-iragarkiak publikatzeko atal bat egongo da, non ikasleek prezioa, tamaina eta bere lehentasunen arabera aukeratu ahal izango dute non eta norekin bizi.